Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2016ko urtarrilaren 28a, osteguna — 17 — Jueves, a 28 de enero de 2016



## ESKORIATZAKO UDALA

*Intxaurtxueta 26 zenbakiko bigarren solairuko eskueman dagoen udal jabetzeko etxebizitza errentan emateko deialdia.*

*1. Esleitzailea.*

a) Erakundea: Eskoriatzako Udala.

b) Espedientea bideratzen duen saila: Gizarte Zerbitzuak.

*2. Kontratuaren gaia.*

Eskoriatzako Intxaurtxueta auzoko 26. Zenbakidun eskapeko bigarren solairuko eskumeko etxebizitza.

Gutxi gorabehera 79,90 $m^2$-ko azalera erabilgarria du.

Honako eranskinak (bereiztu ezin direnak) eman zaizkio:

A) 15 zenbakia duen garajea.

B) 11 zenbakidun trastelekua.

*3. Errentaren prezioa eta iraupena.*

3.1. Kontratuaren prezioa honela ezarriko da:

Hileko gehienezko errenta: Maizterraren hileko diru-sarreren %30a ondorengo irizpideen arabera haztatuta:

Diru sarreren haztapena ondorengo irizpideen arabera egingo da:

a) Haztatu beharreko elementuak.

— Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga aitorpeneko zerga-oinarria, martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuko 21. artikuluan ezarritakoaren arabera zuzenduta.

— Etxebizitzan bere egoitza finkatuko duten bizikidetza-unitateko kide kopurua.

Baztertuta gelditzen da adiskidetasun edo komenientzia arrazoiengatiko bizikidetza.

— Diru sarrerak, gutxienez horien %20a, sortzen dituzten bizikidetza-unitateko kide kopurua.

b) Aurreko atalean aipatutako diru sarreren haztapena ondorengo formularen arabera egingo da:

DH = DK x N x A, honako hauek izanik:

DH: diru sarrera haztatuen zenbatekoa.

DK: Diru-sarrera konputagarriak, martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuko 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

N: haztapen-koefizientea, bizikidetza-unitateko kide-kopuruaren arabera.

A: haztapen-koefizientea, diru sarreren %20 gutxienez irabazten duten bizikidetza-unitateko kideen kopuruaren arabera.

c) N eta A haztapen-koefizienteak, urteko diru-sarrera haztatuak zehazteko aplikatu beharreoak, honako hauek izango dira:

1 edo 1,00.

2 kide: 0,95.

## AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA

*Convocatoria para el arrendamiento de la vivienda propiedad municipal sita en la planta segunda derecha de Intxaurtxueta n.º 26.*

*1. Entidad adjudicadora.*

a) Organismo: Ayuntamiento de Eskoriatza.

b) Dependencia que tramita el expediente: Area de Bienesar Social.

*2. Objeto del contrato.*

Vivienda derecha de la planta segunda, del portal señalado con el numero 26 de Intxaurtxueta auzoa del termino municipal de Eskoriatza.

Ocupa una superficie útil aproximada de 79,90 $m^2$.

Se le asignan los siguientes anejos inseparables:

A) El garaje señalado con el número: 15.

B) El trastero señalado con el número: 11.

*3. Precio y plazo del arrendamiento.*

3.1. El precio del contrato queda establecido de la siguiente forma:

Renta máxima mensual: 30% de los ingresos mensuales del inquilino que serán ponderados según los siguientes criterios:

La ponderación de los ingresos se realizará conforme a los siguientes criterios:

a) Elementos a ponderar.

— Base imponible de la declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, corregida de acuerdo con lo señalado en el artículo 21 del Decreto 39/2008 del 4 de marzo.

— Número de miembros de la unidad de convivencia que hayan de fijar su residencia en la vivienda.

Quedará excluida la convivencia por razones de amistad o conveniencia.

— Número de miembros de la unidad de convivencia que generen los ingresos aportando, al menos, el 20% de los mismos.

b) La ponderación de los ingresos, a que se refiere el punto anterior se efectuará de acuerdo con la siguiente fórmula:

IP = BI x N x A, siendo:

IP: cuantía de los ingresos ponderados.

IC: Ingresos computables, de acuerdo con lo señalado en el artículo 21 del Decreto 39/2008, de 4 de marzo.

N: coeficiente ponderador en función del n.º de miembros de la unidad de convivencia.

A: Coeficiente ponderador en función del n.º de miembros de la unidad de convivencia que aporten al menos el 20% de los ingresos brutos.

c) Los coeficientes de ponderación N y A, aplicables a la determinación de los ingresos anuales ponderados serán los siguientes:

1 miembro: 1,00.

2 miembros: 0,95.

EK\CV GAO-I-2016-00421

3 kide: 0,90.

4 kide: 0,85.

5 kide: 0,75.

6 kide: 0,65.

7 kide: 0,55.

7tik gora: 0,50.

1 hartzaile: 1,00.

2 hartzaile: 0,90.

3 hartzaile edo gehiago: 0,85.

3.2. Kontratuak urte beteko (1) iraupena izango du. Hitzartutako epemuga iritsitakoan, eta Hiri-errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 9. artikuluan ezarritakoaren arabera (ekainaren 4ko 4/2013 Legeak aldatutakoa), kontratua urtez urte luzatuko da errentamenduak hiru (3) urte egin arte, baldin eta errentariak berriztatzeko asmorik ez duela adierazten ez badio errentatzaileari kontratua edo horren luzapenetako bat amaitu baino gutxienez hogeita hamar egun lehenago.

*4. Lizitatzaileek espezifikoki bete beharreko baldintzak.*

1. Adinez nagusia edo emantzipatua izatea.

2. Eskoriatzako udalean erroldatuta egotea, gutxienez, 2014ko abenduaren 31a baino lehen.

3. Etxebizitza eskatzaileen Eusko Jaurlaritzako erregistroan izena emanda egotea etxebizitza erosteko edo alokatzeko eskatzaile bezala.

4. Etxebizitza beharra egiaztatuta edukitzea eskatzailea honako egoeran egoteagatik: Bizikidetza-unitateko kide batek ere Euskal Autonomia Erkidegoan jabetzan etxebizitzarik ez edukitzea, ez jabetza soilik, ez lurrazal-eskubiderik edo usufrukturik. Baldintza hori ez dute bete beharrik izango 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 9. artikuluan jasotako salbuespenetakoren batean daudenak. Agindu hori etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa da, eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuak eman zuen 2012ko urriaren 15ean.

5. Urteko diru sarrera haztatutak 3.000 eta 25.000 euro artekoak direla kreditatzea.

Diru-sarrera konputagarrien jasotzaile gisa bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsona guztiak hartuko dira kontuan.

Diru sarrerak martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuan zehaztutako irizpideen arabera kalkulatu eta haztatuko dira. Dekretu hori babes ofizialeko etxebizitzen erregimenari eta etxebizitza eta lurzoru arloko finantza neurriei buruzkoa da.

*5. Agiriak eta argibideak non jaso.*

a) Entitatea: Eskoriatzako Udala.

b) Helbidea: Fernando Eskoriatza plaza z/g.

c) Herria eta posta kodea: Eskoriatza 20540.

d) Telefonoa: 943.714.407 - 943.714.532.

e) Faxa: 943.714.042.

f) Udalaren webgunea: www.eskoriatza.net.

g) Dokumentazioa eta informazioa eskuratzeko azken eguna: 2016ko otsailaren 26a (14:30ean).

*6. Eskaerak aurkeztea.*

a) Aurkezteko azken eguna: 2016ko otsailaren 26a (14:30ean).

b) Aurkeztu beharreko dokumentazioa: baldintza ekonomiko administratiboen agiriko 18. baldintzan adierazitakoa.

3 miembros: 0,90.

4 miembros: 0,85.

5 miembros: 0,75.

6 miembros: 0,65.

7 miembros: 0,55.

Más de 7: 0,50.

1 perceptor: 1,00.

2 perceptores: 0,90.

3 o más perceptores: 0,85.

3.2.-El Contrato tendrá una duración de un (1) año. Llegada la fecha de vencimiento del plazo de duración pactado y de conformidad con lo dispuesto en el Artículo 9 de la Ley 29/1994, de 24 de noviembre, de Arrendamientos Urbanos, (modificado por la Ley 4/2013, de 4 de junio) el contrato se prorrogará por plazos anuales hasta que el arrendamiento alcance una duración de tres (3) años, salvo que el inquilino manifieste al arrendador, con treinta días de antelación como mínimo a la fecha de terminación del contrato o de cualquiera de las prórrogas, su voluntad de no renovarlo.

*4. Requisitos específicos de los solicitantes.*

1. Ser mayor de edad o emancipado.

2. Estar empadronado en el municipio de Eskoriatza antes del 31 de diciembre 2014.

3. Estar inscrito en el Registro de Solicitantes de Vivienda del Gobierno Vasco como demandante de vivienda en régimen de compra o en régimen de arrendamiento.

4. Tener acreditada la necesidad de vivienda por concurrir en el solicitante la siguiente circunstancia: Carecer todos los miembros de la unidad de convivencia de una vivienda en propiedad, nuda propiedad, derecho de superficie o usufructo en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Quedan exceptuados de dicho requisito quienes se encuentren en uno de los supuestos de excepción contemplados en el art. 9 de la Orden de 15 de octubre de 2012, del Consejero de Vivienda, Obras Pública y Transportes, del registro de solicitantes de vivienda y de los procedimientos para la adjudicación de Viviendas de Protección Oficial y Alojamientos Dotacionales de régimen Autonómico.

5. Acreditar ingresos anuales ponderados desde 3.000 € a 25.000 €.

Se tendrán en cuenta como perceptores de ingresos computables a todas las personas que formen parte de la unidad de convivencia.

Los ingresos se computarán y ponderarán conforme a los criterios establecidos en el Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen de viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo.

*5. Obtención de documentación e información.*

a) Entidad: Ayuntamiento de Eskoriatza.

b) Domicilio: Fernando Eskoriatza plaza z/g.

c) Localidad y código postal: Eskoriatza. 20540.

d) Teléfono: 943.714.407 - 943.714.532.

e) Telefax: 943.714.042.

f) Página web del Ayuntamiento: www.eskoriatza.net.

g) Fecha límite de obtención de documentos e información: 26 de febrero de 2016 (14:30 horas).

*6. Presentación de las solicitudes.*

a) Fecha límite de presentación: 26 de febrero de 2016 (14:30 horas).

b) Documentación a presentar: La exigida en la cláusula 18 del Pliego de Condiciones Económico Administrativas.

EK\CV GAO-I-2016-00421

c) Aurkezteko lekua: Erregistro Nagusia.

1. Erakundea: Eskoriatzako Udala.

2. Helbidea: Fernando Eskoriatza plaza z/g.

3. Herria eta posta kodea: Eskoriatza 20540.

Eskoriatza, 2016ko urtarrilaren 20a.—Alkatea. (421)

c) Lugar de presentación: Registro General.

1.ª Entidad: Ayuntamiento de Eskoriatza.

2.ª Domicilio: Fernando Eskoriatza plaza z/g.

3.ª Localidad y código postal: Eskoriatza 20540.

Eskoriatza, a 20 de enero de 2016.—El alcalde. (421)

EK\CV GAO-I-2016-00421